



Argia IPI  
01449 Uzkiano  
Araba

Zuriñe Oteiza  
Arabako Hezkuntza sailaren ordezkaria  
Prudentzio Deuna, 18, behea  
01005 Vitoria-Gasteiz

## **DBHko eraikinean egokitzapenak egin beharra**

Andre hori:

Dakizunez, 2013ko uztailean, Argia IPI ikastetxea sortu zen Txomin Arruti DBH eta Mendi-Lauta Ikastola HLH ikastetxeen fusioaren ondorioz.

Bat egite hori ahalik eta ondoen kudeatzeko, DBHko egoitzan kokatu genuen idazkaritza, LHko egoitza ez zegoen-eta egoera egokian bertan kokatzeko.

Sei hilabete pasa dira harrezkeroztik, eta, gaur egun, **gutziz beharrezkotzat jotzen dugu DBHko eraikinean zenbait egokitzapen egitea** espazioa zentzu handiagoarekin erabiltzeko:

- Idazkaritza gela zabaltzeko, pareta bat botatzea.
- Beheko solairuan dauden bi bulegoetan pareta bana botatzea, bi bulegoekin espazio bat egiteko eta irakasleen gela bertan kokatzeko.

Horregatik guztiagatik, zuregana jotzen dut, behar-beharrezkoa dugulako laguntza ekonomikoa egokitzapenok egiteko. Beraz, **Hezkuntza sailak dauzkan teknikoak gure ikastetxera bidaltzeko** eskatzen dizut, behar ditugun egokitzapenen bideragarritasuna eta haien kostua balioetsi dezaten.

Eskaera hau aintzat hartuko duzulakoan, zure erantzunaren zain gelditzen gara.

Begirunez,

Jose Anjel Irigoien

Argia IPIko zuzendaria

Uzkianon, 2014ko otsailaren 14an